

Erasoan aurrean, 0 tolerantzia!

Udal gobernua osatzen dugun emakume eta gizonen, oposizioko alderdien atxikimenduarekin, asteburuak utzitako gertakarien aurrean gaitzespen osoa adierazi nahi dugu. Era berean, gure babes eta laguntza guztia helarazi nahi diogu, bai erasoak jasane duen emakumeari, bai bere lagun eta senide guztiei.

Izan ere, emakume bat erasotu dute asteburuan, baina herri osoa sentitu da erasotua. Hau ez da emakume baten aurkako eraso bat izan, emakumearen aurkako eraso bat baizik.

Indarkeria eta eraso matxistak ezin dira gertaera isolatu edo salbuespen gisa ulertu. Indarkeria matxista sistema patriarkalaren ondorio bat da, ondoriorik larriena eta egiturazkoa. Indarkeria matxista emakume eta gizonen arteko botere-harremanak mantentzeko baliabide indartsua da. Guk ordea, herri parekide bat nahi dugu, eta instituzio moduan, horren aldeko pausoak ematea dagokigu. Horrekin batera, indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina. Pertsonak askatasunean heziko dituen hezkuntza sustatu behar da (sistema heteropatriarkalak sortzen dituen emakume eta gizonen arteko botere-harremanak eta emakume eta gizon izateko eredu bakarrak gaindituko dituen). Pertsonen sozializazio-prozesuei erreparatzea ezinbestekoa da, hortaz.

Indarkeria matxista lehen mailako arazoa da. Emakumeen eguneroko ogia. Oraindik, neurri handi batean, ezkutuan mantentzen da, justifikatu eta tapatu egiten da. Ez da inola ere, ordea, esparru pribatuari dagokion arazo bat. Arazo kolektiboa da, guztiona, eta guztion ardua da indarkeria matxistari aurre egitea. Era berean, ezinbestekoa da emakumeen boteretzea eta herritarren arteko babes-sareak sustatzeko neurriak martxan jartzea, bakardade sententzioari eta babesgabatasun egoerei aurre egiteko.

Indarkeria matxistak jatorri estrukturala duen heinean, aurre egiteko neurriak eta erantzunak ere integralak behar dute izan. Erasotzailearen jarrerak amorruta eta auzo lotsa sentiarazi digun moduan, herritarrek izandako jarrerak oso harro sentiarazten gaitu. Bai erasoaren momentuan eta bai atzoko elkarretaratzean agertutako elkartasunagatik. Hori da bidea.

Atzo eta gaur bezalaxe, aurrerantzean ere erasoan aurrean planto egingo dugu. Nahikoa dela diogu, ozen eta indartsu, ez dugula horrelakorik jarrerarik onartuko.

Guztiona da gure herrian, beldurrik gabe bizitzeko eskubidea, eta denona da eskubide hori bermatzeko ardua. Udal gobernu honek burujabetza defendituko du beti, eta hori norberaren gorputzetik hasten da.

Erasoan aurrean, 0 tolerantzia!